

Gai ordena:

1. Energia
2. Argiteriaren berrikuntza
3. Hondakinak dirulaguntzak
4. Eskola
5. Fibra optikoa
6. Beitiko iturria
7. Ur kontsumoa
8. Beko-kale

### **1. Energia**

Energia aurrezteko dirulaguntzak atera dira. Eskolako bero metagailuak kendu eta “bomba de calor” delakoa jarri ahal izateko eskatuko da dirua.

Helburu eta ekimen zehatzekin plan bat osatzea proposatu du A.R. taldekideak. Pendiente gelditzen da.

### **2. Argiteriaren berrikuntza**

Alkateak azaldu digu bi enpresa aurkeztu direla udalak egindako deialdi publikora. Datozen egunetan ebazpen ofiziala egingo da beste enpresa bati enkargatutako balorazio teknikoari jarraituz.

### **3. Hondakinak dirulaguntzak**

Aldundiak hiri hondakinen sortze-prebentzioaren, berrerabilpenaren eta birziklatzearen arloko jarduerak gauzatzeko diru laguntzak atera ditu. Bi gai posible aipatu dira: Autokonpostaren inguruko zeozer egitea eta zakarrontzi gehiago jartzea. D.E. taldekideak begiratuko ditu zehaztasunak. Bestalde txakur-kaken inguruko eztabaida piztu da ere bai.

### **4. Eskola**

Aurreko bileran atera zen gaiarekin jarraituz O.A. arkitektoak esan du Hezkuntza Saileko arkitektoarekin hitz egin dela eta datu zehatzagoak behar dituztela esan digute. Eskolaren behar errealak zeintzuk diren jakin behar dute. Hezkuntzako beste arduradun batekin hitz egin behar omen dugu. Taldean adostu da gai honetaz ezin garela ahaztu, eskaerak egiten jarraituko dugula eta eskolarekin koordinatu behar dugula.

### **5. Fibra optikoa**

Aste honetan bertan (asteazkenean) bilera izango dugu Telefonica-ko arduradun batzuekin. Helburua da haiek azaltzea guri zeintzuk diren beraien planak.

### **6. Beitiko iturria**

Berrito atera da gai hau (norbaitek iturrian jarritako sareak zipriztinak eta lizuna eragiten ditu). Sarea kendu behar dela adostu da. A.G.-k esan du bera arduratuko dela gai honetaz.

## **7. Ur kontsumoa**

I.A. kideak herritarren ur kontsumoen datuak bildu ditu. Oro har ikusi da antzeko herrien kontsumoekin bat datozela.

## **8. Beko-kale**

Beko Kanean egin nahiko genituzken aktuzioak eskuratu nahi dugun terrenoaren menpe daude (gehien bat norabide bakarra jartzea). Suposatzen da korapilo hori laster askatuko dela baina bitartean aktuzio txikiagoak egiteko beharra dagoela ikusi da.